

**2010EKO APIRILAREN 12AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Hamabia

HILABETEA: Apirila

URTEA: Bi mila eta hamar

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatzi eta erdiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Aitor Aldasoro Iturbe
Jon Kortaberria Lasa
Begoña Lasa Royuela
Julio Herreros Serna

ETORRI GABEAK: Fernando Boada González

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2010eko martxoaren 30eko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute aktarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- OBRAK KONTRATATZEA. "Igartzako presarentzat erakustokia eraikitzeke lan-proiektua"ri buruzko obrak kontratatzeke baldintza administratiboa onartzea eta deialdi publikoa egitea.

Igartzako Batzorde Bereziak proposatuta, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Deialdi publikoa egitea, prozedura irekiaren bitartez, proiektu honetatik ondorioztatzen diren obrak kontratatzeke: Igartzako presarako erakusleku-gunea exekutatzeko Proiektua. Horretarako proiektua eta baldintza administratiboa onartu zen.

1.- Xedea: Igartzako presarako erakusleku-gunea exekutatzeko proiektuaren obrak kontratatzea.

2.- Prozedura: irekia publizitatearekin

3.- Izapidetzea: arrunta

4.- Lizitazio prezioa: 355.274,69 € BEZik gabe. 412.118,64 €, BEZ barne.

5.- Espedientea: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.net). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

6.-Behin betiko bermea: Adjudikaziodunak kontratua sinatu aurretik aurkeztu behar duen bermea esleipenaren aurrekontuko %5aren balioa duena izango da, BEZ kanpo.

7.- Proposamen eredia: Baldintza Administratiboen pleguaren eranskinean azaltzen dena.

8.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 26 egunetan.

9.- Klasifikazioa: **A Multzoa, 1 Azpi-multzoa, b kategoria**
C Multzoa, 2 Azpimultzoa, b kategoria
C Multzoa, 6 Azpi-multzoa, b kategoria

10.- Adjudikazio irizpideak:

- Prezioa: 50 puntu.
- Obraren azterketa. Lan-egitaraua: 45 puntu.
- Obrari atxikitako pertsonala: 5 puntu.

11.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

12.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

3.- HORNIKETA-KONTRATAZIOA. Igartzako Jauregia argiztatzeko baldintza plegua onartzea eta deialdi publikoa egitea.

Igartzako Batzorde Bereziak proposatuta, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Deialdi publikoa egitea, Igartza Jauregirako argiak erosteko. Horretarako baldintza administratiboa eta erosi nahi diren argien xehetasun teknikoa onartu dira.

1.- Prozedura: irekia publizitatearekin

2.- Izapidetzea: arrunta

3.- Lizitazio prezioa: 1 Lotea, 61.000 € (IVA incluido)
2 Lotea, 65.000 € (IVA incluido)
3 Lotea, 59.600 € (IVA incluido)

Gastuaren gehienezko muga: 185.600 € (BEZ barne).

Lizitatuzaileek hornidura osoarena edota lote ezberdinei buruzko eskaintza egin dezakete. Udalak aldi berean, aurkeztutako eskaintzen arabera, banakako loteak edota eskaintza osotasunean kontratu dezake.

4.- Hornidura-epea: kontratua sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, 4 aste.

5.- Espedientea: administrazio-baldintza eta xehetasun teknikoak, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.net). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

6.- Proposamen ereduak: Baldintza Administrazioen pleguaren 2 eranskinean azaltzen dena.

7.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 15 egunetan.

8.- Adjudikazio irizpideak:

- Proposamen ekonomikoa: 40 puntu.
- Eskaintzaren kalitate teknikoa: 50 puntu.
- Entregatzeko epea: 10 puntu.

9.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunetan eta orduan egingo da.

10.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatuzaileek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderan atalean, ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko hamarretan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.